


**EUSKAL HERRIKO
AGINTARITZAREN
ALDIZKARIA****BOLETÍN OFICIAL
DEL
PAÍS VASCO**

Itundutako posta-ordaina: 8/98

Internet

Franqueo concertado: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1

www.euskadi.net

Administración: c/ Donostia-San Sebastián, 1

Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Bestelako Xedapenak**KULTURA SAILA****6337**

AGINDUA, 2007ko urriaren 31koa, Kultura sailburuarena, euskarazko hedabideei zuzendutako Ukan Berrikuntza Saria sortu eta arautu, eta, aldi berean, 2007. urteari dagokion deialdia egiten duena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuan ezartzen denez, Kultura Sailaren zeregina da, besteak beste, hizkuntza-politika eta euskararen sustapena. Horren haritik, Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuaren 16. artikulua bere 2.b) puntuan honako zeregin hau jartzen dio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren baitako Euskara Sustatzeko Zuzendaritzari: euskarak edozein gizarte-arlotan duen erabileraz edo bizi duen egoeraz gizartearen sentiberatzeko kanpainak edo neurriak garatzea eta koordinatzea.

Zenbait esparru jakinetan, hala nola informazioaren eta komunikazioaren teknologietan, lan-munduan, administrazioan, corpus plangintzan eta euskalgintzan oro har egin eta egingo denari kalterik egin gabe, beharrezkoa ikusi du, aurreko urteetakoari jarraituz, euskarazko hedabideen normalkuntzari eta sendotzeari ekitea, hartarako, besteak beste, diru-laguntzak emanaz. Aurreko hori garrantzitsua bada ere, urrats berria eman nahi izan da. Ondorioz, euskarazko hedabideen kontsu-

Otras Disposiciones**DEPARTAMENTO DE CULTURA****6337**

ORDEN de 31 de octubre de 2007, de la Consejera de Cultura, por la que se crea y regula el Premio Ukan Berrikuntza dirigido a los medios de comunicación en euskera; y, simultáneamente, se convoca la edición correspondiente a 2007.

El Decreto 8/2005 de 27 de junio, de creación, supresión y modificación de los departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, asignó al Departamento de Cultura, entre otras, las relativas a la política lingüística y la promoción del euskera. Al hilo de lo anterior, el artículo 16.2.b del Decreto 25/2006, de 14 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura, asigna la siguiente función a la Dirección de Promoción del euskera de la Viceconsejería de Política Lingüística: el desarrollo y coordinación de campañas o medidas dirigidas a la sensibilización social relativas al uso o situación del euskera en cualquier ámbito social.

Sin menoscabo de las medidas adoptadas hasta el presente y de las que se vayan a adoptar en el futuro en determinados ámbitos (tecnología de la comunicación y de la información, mundo laboral, administración, planificación del corpus y, en general, el sector cultural vasco), ha considerado necesario, siguiendo la línea de trabajo establecida años atrás, proceder a la normalización y afianzamiento de los medios de comunicación en euskera, sirviéndose para ello, entre otras medidas, de con-



mitzaileen apetak asetze aldera egindako kalitatezko ekarpenak saritzea erabaki du Kultura Sailak, berariaz sortutako Ukan Berrikuntza Saria ezarriz.

Hori guztia kontuan izanik, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Agindu honen xedea.

Agindu honen xedea euskarazko hedabideei zuzendutako Ukan Berrikuntza Saria (Euskarazko hedabideen berrikuntzarako saria) sortu eta arautu, eta, aldi berean, 2007. urteari dagokion deialdia egitea da.

2. artikulua.— Ukan Berrikuntza Sariaren xedea.

Ukan Berrikuntza Saria xede bakarra du: kontsumitzaileen premiak eta beharrak ase eta, aldi berean, ekonomikoki bideragarria egite aldera berariazko ahalgina egin duen euskarazko hedabidea saritu eta dagokion jendaurreko aitortpena egitea.

3. artikulua.— Sariaren ezaugarriak.

1.— Ukan Berrikuntza Saria bakarra da eta, hortaz, zatiezina.

2.— Epaimahaiaren iritziz saria lortzeko nahiko meriturak erakutsi duen hedabidearen jabe den pertsona juridiko pribatuak hamabi mila (12.000,00) euro gordin jasoko du. Era berean, berariazko agiria.

4. artikulua.— Hautagaiak eta onuraduna.

1.— Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko dirulaguntzak emateko modua arautuz 2007ko otsailaren 14an emandako Aginduaren (Hedabideak deialdia) bidez laguntza gai izanik esandako deialdi horretan (EHAA, 2007ko martxoaren 5ekoa, 45. zk.) jarritako baldintza guztiak betetzen dituzten hedabideak dira Ukan Berrikuntza Sariaren hautagai. Onuraduna, hortaz, saritzea erabaki den hedabidearen jabe den pertsona juridiko pribatua izango da.

2.— Saria jasotzeko eskubidea galduko dute -eta, hala badagokio, jasotako diru-kopurua itzuli beharko dute- diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzarekin administratiboki edo penalki zigortutakoek, bai eta horretarako gaitasuna kentzen duen legezko debekurik dutenak, Emakumeen eta Gizoneen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeazko azken xedapenetako seigarrena urratuz sexu-diskriminazioa egiteagatik debeku horrekin zigortuta daudenak barne.

vocatorias de subvención. Aun sin restar importancia a lo anterior, el Departamento de Cultura ha estimado conveniente dar un paso más en la línea emprendida, creándose al efecto el Premio Ukan Berrikuntza. Mediante dicho premio, el Departamento de Cultura quiere premiar aquellas aportaciones de calidad realizadas al objeto de satisfacer las demandas de las personas usuarias de medios de comunicación en euskera.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto de la Orden.

Es objeto de la presente Orden crear y regular el Premio Ukan Berrikuntza (Premio Berrikuntza dirigido a los medios de comunicación en euskera), y simultáneamente convocar la edición correspondiente a 2007.

Artículo 2.— Objeto del Premio Ukan Berrikuntza.

El Premio Ukan Berrikuntza tiene un único objeto: reconocer públicamente y premiar la labor realizada por un medio de comunicación en euskera en orden a satisfacer las demandas de las personas usuarias y simultáneamente, hacer que dicho medio de comunicación sea progresivamente viable desde el punto de vista económico.

Artículo 3.— Características del Premio.

1.— El Premio Ukan Berrikuntza es único e indivisible.

2.— El medio de comunicación que haya mostrado suficiente mérito según el parecer del jurado, recibirá doce mil (12.000) euros brutos. Así mismo, un diploma acreditativo.

Artículo 4.— Candidatos y entidad beneficiaria.

1.— Son candidatos al premio Ukan Berrikuntza los medios de comunicación en euskera que son objeto de subvención de acuerdo a la Orden de 14 de febrero de 2007 del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco (Convocatoria Hedabideak) por la que se regula la concesión de subvenciones destinadas a la consolidación, desarrollo y normalización de los medios de comunicación en euskera; y cumplen las condiciones establecidas en dicha Orden. La entidad beneficiaria será, en consecuencia, aquella persona jurídica privada titular del medio de comunicación premiado.

2.— Constituirá supuesto de pérdida del derecho al premio y obligación en su caso de devolución de las cantidades percibidas, el haber sido sancionado o sancionada administrativamente o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o hallarse incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

5. artikulua.— Sariaren kudeaketa.

Kultura Saileko Euskara Sustatzeko zuzendariari dagokio deialdi honen kudeaketa-lanak egitea.

6. artikulua.— Epaimahaia eta hautaketa-bidea.

1.— Ukan Berrikuntza Saria nori eman erabakitzekeo epaimahai bat eratuko da.

2.— Epaimahai horretako kideak honako hauek izango dira:

a) Epaimahaiburua, Hizkuntza Politikarako sailburordea.

b) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Euskara Sustatzeko zuzendaria.

c) Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia edo berak izendatutako ordezkia.

d) Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalizatzeko zuzendari nagusia, edo berak izendatutako ordezkia.

e) Arabako Foru Aldundiko Kultura Departamentuko ordezkari bat.

f) EULELeko ordezkari bat, bere lehendakariak izendatutakoa.

g) Kultura Saileko prentsa-aholkularia.

h) Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Dokumentazio- eta Informazio-arduraduna.

i) Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Dokumentazio- eta informazio- Zerbitzuari atxikitako funtzionario bat. Honek hizpidez baina hautespiderik gabe idazkari lanetan jardungo du.

3.— Epaimahaiaren osakeraren berri Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emango da, Hizkuntza Politikarako sailburuordearen Ebazpen baten bitartez.

4.— Epaimahaiko kideek abstenitu egin beharko dute eta errefusatu ahal izango dute Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

5.— Sarituaren hautaketa epaimahaiak eginkizun horretarako antolatutako lan-bilera(k) eginez eta balorazioarako kontuan harturiko irizpideei jarraituz egingo da.

6.— Bilera-deia idatziz egingo da. Bilera-idazkiak tokoa, eguna eta ordua zehaztuko ditu. Ordua dela-eta, bi deialdi egingo da: lehenengoa jarritako orduan egingo da; bigarrena, berriz, lehenengoa egin eta ordu erdira. Lehenengoa egiten den unean epaimahaikide guztiak ez badira bertaratu, bigarren deialdia egingo da. Artez eta moldez eratutzat jotzeko, une horretan maizakideen herenak egon beharko du bertan.

Artículo 5.— Gestión del Premio.

La gestión del Premio Ukan Berrikuntza corresponde a la directora de Promoción del Euskera del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Artículo 6.— El jurado y modo de elección.

1.— Se contará con un jurado para decidir a quien corresponde el Premio Ukan Berrikuntza.

2.— Serán miembros del jurado los citados a continuación:

a) Presidente del jurado, el Viceconsejero de Política Lingüística.

b) La Directora de Promoción del Euskera de la Viceconsejería de Política Lingüística.

c) El Director general de Promoción del Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia, o persona sustituta nombrada por él.

d) La Directora general de Normalización del Euskera de la Diputación Foral de Gipuzkoa, o persona sustituta nombrada por ella.

e) Una persona representante del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Álava.

f) Una persona representante de EULEL, nombrada por su presidente.

g) El asesor de Prensa del Departamento de Cultura.

h) El responsable de Documentación e Información de la Dirección de Promoción del Euskera.

i) Un funcionario adscrito al Servicio de Documentación e Información de la Dirección de Promoción del Euskera, quien realizará funciones de secretario. Tendrá voz, pero no voto.

3.— La composición del jurado se hará pública mediante la inserción en el Boletín Oficial de País Vasco de la Resolución del Viceconsejero de Política Lingüística.

4.— Según los términos previstos en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas, los miembros del jurado deberán abstenerse y podrán ser recusados.

5.— La elección de la persona premiada se llevará a cabo siguiendo los criterios establecidos para la valoración en cuantas reuniones de trabajo sean oportunas.

6.— La convocatoria de reunión se realizará por escrito. La convocatoria recogerá el lugar, día y hora de la reunión. En referencia a la hora se harán dos convocatorias: la primera se hará a la hora indicada; la segunda, en cambio, al de media hora de la primera. Si en el momento de la primera convocatoria no se encuentran todos los miembros del jurado, se realizará la segunda. Para que se dé por constituida formalmente, tendrá que asistir un tercio de los miembros del jurado.

7.— Epaimahaiak gehiengo soilaz erabakiko du Ukan Berrikuntza Saria nori eman, eta quoruma izateko epaimahaikide erdiek gehi batek egon beharko dute. Hainbanaketa gertatuz gero, epaimahaiburuak erabakiko du kalitatezko botoz.

8.— Beharrezkotzat jotzen badu, epaimahaiak Agindu honen xedearen gainean adituak direnen aholkularitza jaso ahal izango du.

9.— Aztertu beharrekoak aztertu eta hautaketa-irizpideak aplikatu ondoren, epaimahaiak saria nori eman proposatuko dio Kultura sailburuari. Proposamenak hartutako akordioa justifikatzen duten arrazoiak azalduko ditu, eta, era berean, saritutako hedabide horren jabe den pertsona juridiko pribatuaren ahaleginaren esanahiaz egiten duen balorazioa ere jasoko du.

10.— Epaimahaiak proposamena ez egitea erabaki ahal izango du, epaimahaikide gehiengo soilaren ustez, saria jasotzea merezi duen hedabiderik ez badago.

7. artikulua.— Hautaketa-irizpideak.

Erabaki-proposamena hartzeko, epaimahaiak irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

a) Euskal irakurleak, entzuleak edo ikusleak asetze aldera hedabidearen jabeek hedabide horren egokitzapenaren eta etengabeko hobekuntzaren inguruan erakutsitako ahalegina eta garatutako berariazko ekimenak.

b) Hedabide horrek irakurleen edo ikus-entzuleen artean duen eragina eta harrera.

c) Hedabide horrek azken bi urteren barruan irakurle, entzule edo ikusle berriak bereganatzeko eta, aldi berean, aurrekoei eusteko garatutako jarduerak.

8. artikulua.— Erabakia.

1.— Epaimahaiaren proposamena ikusirik, Kultura sailburuak dagokion erabakia hartuko du.

2.— Erabakia hartu aurretik, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak saritzea proposatu den hedabidearen sustatzaile den pertsona juridiko pribatuarengana joko du idatziz onespenean eta, ondorioz, saritu nahi den pertsonak, saria onartzekotan, saria onartu egiten duela adieraziko dio esandako Zuzendaritzari, hartarako jasoko duen berariazko idazki baten bidez. Idazki berean, diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren baten edo administrazio-zehapen edota zehapen penalaren baten menpe ez dagoela eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela bide zigortuta ez dagoela egiaztatzen duen zinpeko aitormena egin beharko du saritzea proposatzen den pertsonak.

3.— Erabakia Agindu hau indarrean jarri eta bi hilabete epean emango da, gehienez. Adierazitako epean Ebazpen zehatzik emango ez balitz, saririk ez dela emango ulertuko da.

7.— El jurado decidirá por mayoría simple a quien conceder el Premio Ukan Berrikuntza. Para poder llevar a cabo la votación se requerirá la presencia de la mitad más uno de los miembros del jurado. En caso de empate decidirá el presidente del jurado con su voto de calidad.

8.— Si el jurado lo considera necesario, podrá recibir asesoramiento de personas entendidas en la materia objeto de la presente Orden.

9.— Una vez analizadas las propuestas y aplicados los criterios, el jurado propondrá a la Consejera de Cultura a quien conceder el premio. Tal propuesta expondrá las razones que justifiquen la propuesta, y del mismo modo, recogerá la valoración que se hace sobre el significado del esfuerzo del medio de comunicación premiado.

10.— El jurado podrá dejar el premio desierto, si en opinión de la mayoría simple, no hay candidato que merezca el premio.

Artículo 7.— Criterios de elección.

El jurado tendrá en cuenta los siguientes criterios para hacer la propuesta:

a) Las acciones llevadas a cabo y esfuerzo demostrado por los titulares del medio de comunicación en referencia a la mejora continua y a la adecuación, con el fin de satisfacer a los lectores, oyentes o espectadores vascos.

b) La acogida e influencia entre los lectores, oyentes o espectadores que tiene el medio de comunicación.

c) Actividades desarrolladas en los dos últimos años por el medio de comunicación para afianzar y atraer nuevos lectores, oyentes o espectadores.

Artículo 8.— Resolución.

1.— Una vez vista la propuesta del jurado, la Consejera de Cultura adoptará la correspondiente resolución.

2.— Antes de adoptar dicha resolución, la Dirección de Promoción del Euskera se dirigirá por escrito a la persona jurídica privada titular del medio de comunicación premiado al objeto de recabar su aceptación. En consecuencia, la persona a quien se quiere premiar, en caso de aceptar el premio, comunicará por escrito a la Dirección de Promoción del Euskera su aceptación, utilizando a tal fin el escrito que recibirá. En tal escrito la entidad beneficiaria tendrá que jurar que no se encuentra incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para la obtención de subvenciones o ayudas y que no ha sido sancionado por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

3.— La resolución se adoptará en el plazo máximo de dos meses desde que surta efectos la presente Orden. Si en el plazo establecido no se adoptara resolución alguna, se entenderá que el premio queda desierto.

4.– Erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

9. artikulua.– Sari-banaketa eta ordainketa.

Ukan Berrikuntza Saria berariaz antolatutako ekitaldi batean eman eta ordainduko da txeki baten bidez. Ekitaldi horretarako deia Kultura sailburuak egingo du.

10. artikulua.– Publizitate-erabilera.

Ukan Berrikuntza Sariaren onuradunak jasotako sariaren aipamena egin eta publizitate gisa erabili ahal izango du.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lebenengoa.– Agindu honetako euskarazko eta gaztelaniazko idazkien artean interpretazio-auzirik sortuko balitz, euskaraz idatzitakoa hartuko da aintzat.

Bigarrena.– Deialdi honetan aurreikusi gabeko guztiari dagokionez azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da, hau da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Bere aurka interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal diote Kultura sailburuari hilabeteko epean, EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko urriaren 31a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

4.– La resolución se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 9.– Entrega y pago del Premio.

La entrega del premio del Premio Ukan Berrikuntza y consiguiente pago mediante cheque bancario se llevará a cabo en un acto público específico. La Consejera de Cultura realizará la convocatoria a tal acto.

Artículo 10.– Uso publicitario.

La persona jurídica privada galardonada con el Premio Ukan Berrikuntza podrá hacer mención del premio recibido y utilizarlo a modo de publicidad.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– De surgir en esta Orden algún problema de interpretación entre los textos en euskera y castellano, se adoptará el texto en euskera como referencia para solucionar dicha eventualidad, toda vez que su redacción original se halla realizada en dicho idioma.

Segunda.– En todo lo no previsto en la presente convocatoria será de aplicación supletoria la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Tercera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán las entidades interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de octubre de 2007.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.